

MENDIBITAREN LARIJAK

Mutil koskorak, tambolin-  
tenua ta abar. Iruditegijan esker  
aldian Lukax'en ostatur. Alkax  
mendija ta bide bat. Eskumaldi-  
jan, arbolak, eta arbolapian mai ta  
aulkijak. Tambolina, san Juan-wine jiar.  
Alkax mutil koskorak aupadela ta baltela 1/  
batetik bestera paretan dira

Irudigileak.....

Alkatia  
Lukax = Ostalarja  
Martin { pelstarjak  
Pelix {  
Blax = Otsena  
Kokax = Aguarilla



1/  
ALKATIA TA LUKAX

- Alk.- Bai, bai jai ederak jaukaguz, Lukax.
- Luk.- Alai dabil emen jentia; bijar eriko jayak erikun dok. Erijan zer gertatzen dan, ba-lekije...?.
- Alk.- Bai gauzak txarto dagoz.
- Luk.- Oso txarto. Izparingi onek diñuan bezintzat, gixon diabru orek Bizkai'ra be eldu ei-dira.
- Alk.- Orixe irakuri dot neuk be.
- Luk.- Baña gaurko barijak irakori al-dozuz?.
- Alk.- Ez? Zer diñue ba paperak?.
- Luk.- Zer diñuen? Entzun, entzun. (Izparingi bat irakuriaz) "Euzkadi'ko mendijetan ebilen lapur-aldra Bizkai'ra eldu da ta eurenak egitzen asi dira. Atzo gabian poralak arapatu ebezan mendi-zulo batian; tiroka gogor jardun ondoren lau oratino kartzelaratu dabez; baña beste bijak (txaraguak ausago) iges egin eben eta pulañez, kutxiloz ta pistolaz josita dabiliz..."
- Alk.- Demoniño demoniña.
- Luk.- Eta "gañera... (au txaragua)... pardi batian diñamita ta bonbak daukiez"
- Alk.- Eri bat oso-osorik aidian jaurtzeko be ba-dira orek.
- Luk.- Baña zortzi eri kixkaltzeko aña be.
- Alk.- Au dok izetekua, au.
- Luk.- Ena ene; txarena orain datorana da. (Irakuriaz) "Geruago be lapur orek ikusi ei dabez... ta Mendibe aldera ei juazan".
- Alk.- Onera? San Antonio... arien lagun egiguzu... Baña Mendibe al-diño?.
- Luk.- Orain zer egin biar dogu, Alkate jauna?.
- Alk.- Nik eztaikit oraintxe zer egin. Ikaragarizkoren bat gañian dogu.
- Luk.- Eta ez edozelakua be.
- Alk.- Oren azkar etzaitte bilurtu beintzat, Lukax.
- Luk.- Bilurtu? Ez orixe...
- Alk.- Onenian gure erira barik Gipuzkoa alderuntz egingo dabe. Bada ezpadan oratiño auzerz neurjak artzian oba ixango da.
- Luk.- Jayetarakoz oretzek iñan be ala alako tresnak...
- Alk.- Baña... zer jasoko be lapur orek ikaragarizko ~~xxx~~ astuak ei dira ta eriko jentiarri detu ta dana garbi esatera nua. Eriako sarerak burdiz ta zuntzo yez itxiko doguz ta eriko eizari onenak eskopetakin jariko doguz; onera datozela ikusten dabezenian... pun, pun... jo ta ke.
- Luk.- Eta tiruak lapur orek dakaren bombaren bat joten ba-dabe? Agur gure erija ta danok aidian.
- Alk.- Ez ez; burura apuntatu ta... zapla... bertan ilda itxi bijak. Zer ba orei gure erian sartzen laga? Ez orixe.
- Luk.- Ori dok ori... Zu zara zu alkate jatorra.
- Alk.- Bando bat eginerasotera nua eriko guztijak plazan batu daitezcan.

2/  
LENGUAK ETA BLAX

- Bla.- (Ari-ariranga ta ixerditan). Jainkarak aratfelde on.
- Alk.- Baña zuri ere.
- Luk.- Zer dabilk oren estu ta lari, mutil?.
- Bla.- Nagusi jauna; or goiko bidez nentorela eri-sareran dagan Kaxparen sagardotegiko atian gixonexko bi ikusi dodez ta eri onetako ostaturik omema norena dan itandu dauste ta nik Lukaxenea esan dautsiet.
- Alk. eta Luk.- "Eeee..."
- Bla.- Orduan ostaturan dan tokirik onena eurentzat gordeteko esan dsuste jayak igaroten datozela ta.
- Alk.- Eta zer modutakuak dira? (Arituta).
- Luk.- Zer itxurakuak dira?.
- Alk.- Lotsagalduko antzekuak dira?.
- Luk.- Bixardunak?.
- Alk.- Zer iñuen?.
- Luk.- Zerako berbatia egiten eben?.

- Alk.-Eskuetan ezer ba-eben?  
 Luk.-Pardelik edo.?(oso arituta)  
 Bla.-Bai, jarleku gañian pardel bi ikusi dodaz.  
 Luk.-Zelakuak.?(arituta)  
 Bla.-Zelakuak? Pardela zelakua ixaten da ?  
 Alk.-Itxusizak al-ziran ?  
 Luk.-Bekoki baltza euken ?  
 Bla.-Ez; gixon yasekuak ziran.  
 Alk.- Pardelak arek usafik botaten eben ?.  
 Luk.- Antz zikiñik edo ba-euken Blax ?.  
 Bla.- Bai...usain apur bat ba-euken.  
 Alk.- Azufriana ez ete zan ?  
 Luk.- Polboriarena ez ?  
 Bla.- Bai zera...Sagarduarema.  
 Alk.- Ik bai uste.  
 Luk.- A gixajua...iruditu bai iri.  
 Alk.- Eta laster emen dira orduan ?, e...  
 Luk.- Onera etoriko ete dira ?  
 Bla.- Onezkero...emen dira  
 Alk.- Bayetz ?  
 Luk.- Zer esan dok ?  
 Bla.- Berialaxe eman dirala.  
 Alk.- Ba-nua, gixon eri onetan sartu ezta ezan egiñalak egingo doguz. Biar di-  
 ran neurijak artzen udaletxera nua. I. Blas ua sekretarijuarengana ta l  
 len-bailen nire etxera etorteko esan egijok; eta zu, Lukax, zure bixija  
 gorde gura ba-dozu atera zaite albait ariñen ostatu onetati k. Diruak  
 be artu egizuz. Bestela aberatza, ba, ba-zara tazuregandik asiko dira la-  
 pur orek  
 Luk.- Eresoya dozu Alkate jauna; orixe egingo dot.  
 Alk.- Kontuz ibili. Agur ta gero arte. (Ba-dua).  
 Luk.- Bai gero arte. Onakorik zer ikusiko ete dogu ? Lenaz gain orain au. Aze-  
 lako jayak. Ezkatuk alpeñik ainbeste olo ta olasko ta arkume akarten  
 ibili. Juan zituan, juañ gare odolozte ta lukainkak. Etxituan alpeñik  
 ekari sagardo, ardo ta edari gozuak. Nuan, nuan len-bailen etxera, nire di  
 ru apurak artu ta iges egin dagijan. Gañerakuok or konpon.

3/

## MARTIN ETA PELIX

- Mar.- Eldu gaituk oraitiño be.  
 Pel.- Ordua zuan. (Parfelak jarleko gañian isten dabez).  
 Mar.- Nik uste baño urñago yagok eri au.  
 Pel.- Yai besperia ixateko jente gitxi yagok kale aldian. Eta leiyo ta ate g  
 guztijak itxita... Gañera.  
 Mar.- Aaaa... Bijarko etxeak garbitzen eta baskarijak gertetan ibiliko dozak.  
 Pel.- Orixe izango dok. Gure estatua au etem dok ? (Etxeari begiratuaz).  
 Mar.- Au izango dok "Lukaxena ipintzen jok eta.  
 Pel.- Aritzekua dok emen iñor ez agertia. Eeeapp...  
 Mar.- I, ta zer moduko pelota-tokia ete juagu emen ?  
 Pel.- Txare-na ixan da be, etxeberikua baño obia ixango al-dok beintzat.  
 Mar.- (Ezkui txistua bat). Iño... axes zer sasoa ointxe pelotan jokatzeke.  
 Pel. p Bata neuk be .  
 Mar.- Emen be pelota-zaliak ixango dozak, eta bijar mesa nagusi ondoren, "ba-  
 dago" otx egingo yautzague emengo bixari onen bijei.  
 Pel.- Bai, bai. Jayetara etori garan ezkerre pelotan jokatu barik etxera ? Ez.  
 Mar.- I, ta Bilbao'ko Baskaldunan irekin jokatu eban pelotarija eri onetakua  
 etzuan ba ?  
 Pel.- Eresoya daukak. Emengo sakristauaren semaa zuan.  
 Mar.- Konde... Beste bat bilatu ta bijar bi bitara emen beinbe ikusi eztaulako,  
 pelota partidua jokatuko juagu.  
 Pel.- Ori dok ori.

4/

## LENGUAK ETA LUKAX

- Luk.- (Beso-pian diru-sakua damañla). Ene... Jesus, Maria ta Jose... (Jentiari begi-  
 ra).  
 Mar.- Ikaragariren bat egingo juagu eri onetan.  
 Luk. @ (Jentiari begiara). Galduak gara.  
 Pel.- Bai, mutil; aurtengo jayak gogoragariak ixango dozak Mendibitarentzat euren  
 bixi guztirako.

Luk.- Niriak egin dau (estututa).  
 Mar.- Gu ezkatzek ezagutzen emen eta ikararuko josak guk egingo dogunak.  
 Pel.- Eri guztija aidian jariko juagu.  
 Luk.- Ene...au dok ixatekua (bese-peko diru-poltza lurera jausten jako).  
 Mar.- Zer dok ori (Lukax'eri).  
 Luk.- Ezer...ez...zera...utsa... (bildurez). Parkatu jaunak (boltza jasoaz).  
 Pel.- Ola, adizkide, besperatik diru-polttsakin, e ?  
 Luk.- Ezta dirua.  
 Pel.- Dirua ez tala ? Zer ba intxaurak ?  
 Luk.- Ez, intxaurak ez baño... (Jentiari)...galdu naz.  
 Mar.- Ezagun da aberatza zariana . Olako dirudunak guztetan jakuz guri.  
 Pel.- Eta eri onetan aberatza asko al-da ?  
 Luk.- Bai...edozenbat.  
 Mar.- Eta eripnetakueri jolastutzea gastetan jakue ?  
 Luk.- Batzuetan...batzuetan.  
 Pel.- Aurtengo jayatan ba ederto jolastuko zarie.  
 Luk.- A nere Jainkua.  
 Mar.- Nortzuk gariala uste dozu zuk ?  
 Luk.- Eztakit ba.  
 Pel.- Orain baño lenego be naikua berbakizun eman dogg gero guk...Ez emen baka-rik, Ameriketan be bai.  
 Luk.- Sifosten dot, bai.  
 Mar.- Ezta ibili ez-karan tokirik. Munduare, aldenik-aldean ibili gara.  
 Pel.- Gure ixena entzutegua da bastar guztijetan.  
 Luk.- Bai, bai, geyago zer nai zenduke ?  
 Mar.- Eri onetako bari zuk ondo jakingo dozu ezta ? Zer modutako alkafia dauko-zue ?  
 Luk.- Ona.  
 Mar.- Guazen orain ostatura. Antxe kenduko doguz bideko autjak eta pixkat apain-  
 du, be, bai.  
 Pel.- Erezoia dozu. (Txaluak juaz) Eeeuupp...eeuupp...ostalari.  
 Luk.- Zer nai dozu ?  
 Mar.- Aaaa...zu zara ostalarija ?  
 Luk.- Bai jauna.  
 Mar.- Egun batzuek emen pasatuko ostatura gura genduke.  
 Pel.- Gu gatozema mutil gaste batek ez al-dautsuy esan ?  
 Luk.- Bai...ez...eztakit ba.  
 Mar.- Au gixajoren bat dok.  
 Luk.- (Bere artean). Bai naiko gixajo...  
 Pel.- Baña zer... bai ala ez ?  
 Luk.- Bayetz esan bearko, bestelan etxia aidian botako dauste.  
 Mar.- Guazen ba.  
 Luk.- Sartu, sartu.  
 Pel.- Ostatu ederra dirudik onek.  
 Mar.- Bai itzura (Pelotarijak sartzen dira etxera ta Lukax ateratzen da kanpora)  
 Luk.- Nuan, nuan, gixon lapurak elda dirala aitzen emeten Alkatiari.

BLAX, DANBOLINTXERUAK, AGUAZILA, MUTIL KOXKORAK.

Agu.- (Danak saltoka ta eupadaka). Alto, geldi guztijak emen (makila jasuz).  
 Mut. batek.- Zer dala ta ?  
 Agu.- Alkatiaren agindua *dalako*.  
 Mut.- Alkatiaren baimeba ba-dogu guk gaur soñua jo ta ibilteko  
 Agu.- Ixilik. Gure erija gal-sarijan eta soñua joteko gogua oindiño ?  
 Mut.- Eeee...zer...gure erija galtzeko arizkuan daguala ?  
 Agu.- Bai.  
 Mutil batek.- Zer jasoten da ba ?  
 Agu.- Zer jasetan dan ? Eri guztija ere, kixkaldu, apurtu, birindu, ezeréztuta ta  
 auts eginda ittekotan akaragarizko lapur bi etori dira.  
 Mut.- Eneee.....

LENGUAK ETA LUKAX

Luk.- (Sartzen da) Bai, ta gañera etxe onetan ei dagoz.  
 Bla.- Nik Kaxpareneko sagardotegijan ikusi dodaxenak. Eta ...zer egin be ar dogu  
 orain ?  
 Agu.- Alkatiak, jai-kontuak alde batera itxi ta eritar guztijak plazan batzeko

- agindu dau.
- Luk.- Ondo dago, bestela ordua ipurdiz gora nire etxiak ~~xx~~.
- Agu.- Orain, danok plazara.
- Mut.- Guazera ba. (Lukax eta Blax i~~x~~an ezik).
- Bla.- Guztijak ba-duaz. Eta ni emen bakarrik? Arriua... ez orixe... (ba-dua).
- Luk.- I, Blax, ik ez dok juan biar.
- Bla.- Zer ba,? Zer egin bear dot nik emen,? Ba-nua.....
- Luk.- Ez, ez ik nere etxiari kontu artzen emen egon bear az. Ba-dakik nire aberastasan dana etxe onetan daguala.
- Bla.- Zure aberastasanak baño nire bixija aurretik da.
- Luk.- Gixona.... Orénbeste ez adi ikaratu. Autsa nire eskupetiau, eta lenen ateratzen danari ardura barik tiratu.
- Bla.- Zeeer? Neure bixi guztijan atxura besterik artu ez dodan onek eskupetia artu?
- Luk.- Bai, gixona, bai. Larialdijetan gixona-gixon. Autsa, ta ez lorik egin. (Eskupetia emoten dautso)
- Bla.- Ai... Nere ~~ixikoa~~ Jainkoa.... Zer egingo juat eskupeta onegaz?
- Luk.- Ez adi kirtena ixen: eskupeta artu egik orrela, ta.... batera ta bestera ibiliko az beti, ta baten-bat ikusten ba-dok, jari bere aurian eta sartu tripan batetik bestera tira.
- Bla.- Danik eta zaparadarik txikijena entzun orduko, ba-nua ni emendik itxumuztuan.
- Luk.- Baña, gixona, zer dalata orénbesteko bilura?
- Bla.- Nik bilurik eztaukat.... baña laster danok aidian ibiliko garala gogortzen yatanean dar-dar....
- Luk.-  $\beta$  Bere artan) Bata nik ~~be~~. Tira, Blax, ire kontu emengo guztija, ta... ~~agu~~ agur (Juaten asten da).
- Bla.- Aasstssiii...
- Luk.- Ai... (Garaxiak eta saltuak egiaz).
- Bla.- Ai... ( " " " " )
- Luk.- Zer dok mutil? (bilurez)
- Bla.- Nik eztaikit; eztot ezer entzan.
- Luk.- Zergaitik asi ba ba karaxika?
- Bla.- Ni karaxika?... zeu zenbilzan...
- Luk. <sup>4</sup> Ona, emen lapur-pardelak.
- Bla.- Ori esan...
- Luk.- Ikusi egingo dogu zer daukien.
- Bla.- Jun, jun, kontuz ibili gero.
- Luk.- Bai, gixona, bai; itxi egik atia. (Isten dau).
- Bla.- Eta pardelak zabaltzen, ikuzten ba-gaitue.?
- Luk.- Gu ikusi? (Pardel bat zabaltzen asiaz). Zer da au.... txapel goriña...
- Bla.- Ona, ta botila onetan zer ete dago?
- Luk.- Ikusi... (Botilako txrtela irakuriaz). "Petroleo Gal"...
- Bla.- Gal... gal... gal... galduak gara. Ene... Eta gauza biribil onek zer ete dira (Pelotak ikusiaz)
- Luk. eta Bla.- Jesus... bonbak...
- Luk.- Kontuz erémentau barik, Au dok ixatekua! Ba-nua Alkatiari esatera.
- Bla.- Bata ni be.
- Luk.- Zer, i emen geldi...
- Bla.- Ni bakarrik?
- Luk.- Ez, eskupetiaarekin.
- Bla.- Baña...
- Luk.  $\odot$  Ementxe, geldi Alkatiaren etxetik ni etori arte. ta bitartean zeezer sentitzen ba-dok, abixatu niri.
- Bla.- Baña zelan?
- Luk.- Tiro bat aidera jaurtita (ba-dua).
- Bla.- Onako onakorik... Bilurez eta ikaraz ija ilian nai jagok. Zer egingo yuat nik emen? A, Blax, Blax, Blax... Eruki aut, iniek egin yok. Bada-ezpada be pardel ~~auk~~ bonba ta guzti gorde egingo yuat ~~be~~ bestela lapur orek... bonbaren bat niri jaurteko be kapaz dozak. Akabo, Blax, orduntxe...

7/

BLAX, PELIX ETA MARTIN

(Pel. eta Mar. leijotik)

- Pel.- I, ostalari...
- Bla.- Ai... ai... ai... (Bilurez).
- Mar.- Zer gertetan yako oreri?
- Bla.- Neere... Jesu... Kristo... Jauna... Jaungoiko... ta... gixon ... egiazkua...
- Pel.- Ostalariiii... (dadarika).

- Bla.- Emendik alde egin gura nauka, baña indarrik eztaukat, belaunak be "klix klax" egiten dauste.  
 Mar.- Eeee... adizkide...  
 Pel.- Goña ixango dok.  
 Mar.- Poxporo bat bai al-daukazu ?  
 Bla.- Oraintxe bai guriak egin dabela, poxporo eska asi dira ta.  
 Pel.- Mutil orék etxok entzuten eta lore-ontzi ori jaurti egijok, ia entzuten da ben (jaurtzen dutse lore-ontzia ta Blax ikaratuta saltuka ta karasika)  
 Bla.- Sua ,sua...bonbak...

8/

## PELIX ETA MARTIN

(Leijotik)

- Pel.- Ikusi al dok kirten ori ?  
 Mar.- Baña zer garala gu useten ete yok orék ?  
 Pel.- Guazan ostatu onatatic, ganorarik etxagok emen eta...  
 Mar.- Ostaturik onena gu ba-dok...bestiak zelakuak ete dozak ?  
 Pel.- Eresoya daukak.  
 Mar.- Jatsi gadihan eta guazen emendak kalera.(Leijoa itxi ta eskutatzen dira)

9/

## DANAK

- Luk.- Oraitiño be oindiño nire etxia osorik dago (bilurez)  
 Alk.- Eta nondik eta zela bota dabe bonba ori.  
 Bla.- Egija esateko estakit, ez nondik ez zelan bota dabene; bixirik zela naguan be ezakit.  
 Alk.- Tira, aguazila... sartu aurera ta or' zer daguan ikusi egik. Jaso egizak bonba xati onek lenengo.  
 Agu.- Bonba gertak ? Lapiko zaren baten atalak dozak orék.  
 Bla.- Ez, ez, Alkate jauna. Lapiko zafa baño zeozer geyago ixan da or len.  
 Alk.- Ikusi egizuez pardel orék. Onenian zeozer agertuko data.  
 Mar.- (Barutik atia jo ta diadarka). Baña zer gertatan da emen ? Ze arayok atxi ste dau atia?  
 Pel.- Ostalari... eregi egixu arin atia bestela...  
 Bla.- Ez, Alkate, jauna, ez eregi aterik; zabaltzen baodoza guztijok aidian jaartik ko gaua ta.  
 Mar.- Arin atia eregiten ezpadozue etxiaru sun ematera guaz.  
 Luk.- Eee... Nire etxiara sua emon ? Eregi eginjozue askar atxi ori, eregi...  
 Alk.- Aguazila, ia kontuz eregiten dozun...  
 Agu.- Ez, Alkate Jauna, ori zure egitekua da. Oretarako, orelako estutazunetarako egin zinduezan alkate.  
 Alk.- Ustel... ganara-bako... Bilurti... ezerez ori... eregi egik etia, azkar gero.  
 Agu.- Bañ ta zeozer egiten ba-dauste ?  
 Alk.- Eregiko dok ala ez ?  
 Agu.- Ba-nua, ba...  
 Alk.- A, lapur ikaragarijak, zuenak eginyok oraintxe. (Atia eregiten dau aguazila)

10/

## LENAK , PELIX ETA MARTIN

- Pel.- Ordua zuan...  
 Mar.- Zer pasetan da emen one beste gente egoteko ?  
 Agu.- Ola... (alai)... Pelix eta Martin. Kaixo jaunak. (eskua emonaz).  
 Mar.- Zer diñok Kokotx ?  
 Pel.- Zer modu, mutil ?  
 Agu.- Edarto, ta zuek ? Eztauzkuzue bilur makala emeon.  
 Mar.- Baña gu arapetara etofi al zarie ?  
 Agu.- (Apal) Bai, baña parkatu. Men dijan dabiltzan lapur ikaragarijetaikyak za rialauste ixan dau gendiak eta orexegagatik etori gara armauta/  
 Pel.- Bañalapur itxura al daukogu guk ba ?  
 Agu.- Ez, baña parkatu.  
 Mar.- Eta ezer, parkatuta dago.  
 Agu.- Jaunak, nire lagun onek, pelotari onenatarikuak dira.  
 Alk.- Aaa... Bañamutil onek pelotarijak al dira ?

- Mar.- Bai, jauna, bai.
- Luk.- Ondo dago, eztoguz esturazun txarak pasau.
- Alk.- Orduan pelotarijak?. Ondo jatorkuk. Bijar eriko jayak doguz, ta mesa nagusosi ondoren, pelota-partidu bat jokatu biar dozue.
- Mar.- Mesa nagusian abestu be, berdin egingo dogu guk.
- Alk.- Ondo jagok. Ori, dok, ori. Aratsaldian aurrezkua be, ixango juagu, nai ba-dozue?...?
- Pel.- Aurrezkua? Oretan gatuk, ba, mutilak.
- Luk.- Orduan pelotan, mesa-kantetan, aurrezku-eginan... dana dakizue e?.
- Mar.- Bai, yayetara etori garan ezkerro, jayak umore onagaz igaro gura gendukez.
- Alk.- Bai, mutilak.
- Agu.- Aurtengo jayak, zelako edo alakuak ixango ete zirakuan gengoan eta eguno Mendiben ezagutu ezteralakuak ixango juaguz aurtan/.
- Alk.- Gora, Lukax...
- Guz.- GOraaa...
- Pel.- Sagardo onik edo ba-dago emen?.
- Bla.- Sagardua?... Bai arayua ta edera. Baso erdi bete orduko bitza gañezka.
- Mar.- Ori biar juagu, ori...X
- Alk.- Guazian, ba, guztiek aparitara.
- Agu.- Eta begira dagozan jaun oreik?. (Ikuslieri begira)
- Luk.- Bata oreik, beTira, Blax, nire ixenian bertso bategaz konbidau egizak.
- Bla.-

Esturazun eta larrija pranko pasatu ondorenian, aparitxu bat biar dogu egin guztiz umore onian.

Zuek ere orain etori zeinkez jatera gurekin batian; jariko da gaur Lukaxenia bonba barik aitian.

AMAYA